

**UDALBATZAK 2011KO MAIATZAREN 20AN EGINIKO EZOHIKO OSOKO  
BILKURARI DAGOKION AKTA**

Errenteriako udaletxeko bilkura-aretoan, bi mila hamaikako maiatzaren 20ko 08:00ak zirela, lehenengo deialdian eta Juan Carlos MERINO GONZALEZ alkate jaunaren esanetara, ondorengo zinegotziak elkartu dira:

- Joaquin ACOSTA PACHECO
- M<sup>a</sup> del Mar CARRILLO GASCON
- Joseba ECHARTE MARTIN
- Jose Angel RODRIGUEZ MEDINA
- Mikel DURAN GONZALO
- Luis Ignacio ANDRES JIMENEZ
- Juan Carlos MURUA ROMA
- Itsasne ALVAREZ DE EULATE LASA
- Luis Santiago ANGULO MARTIN
- Agustina Ana CANO CEREIJO
- Iñaki QUERALT COIRA
- Gorka MAUDES MIGELTORENA
- Maite PEÑA LOPEZ
- Venancio GRAVINA ESNAL
- Jose Manuel FERRADAS FREIJO
- Jose LEGORBURU AYESTARAN
- Lucia PERALTA RODRIGUEZ
- M<sup>a</sup> Angeles BASTOS FERNANDEZ (Ohartarazten da Gai Zerrendako puntua eztabaidatzen ari zirela bilkuratek alde egin zuela).
- Joxe BURGOS VIÑARAS

Ez da etorri, baina ezinetorria adierazi du Silvia ASTORGA MARTINEZek (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak).

Era berean, bertan dago Udal kontu-hartzaile Txema ARENZANA GARCIA jauna.

Bertan dago, egintzaz fede emateko, Francisco Javier LESCA EZPELETA idazkari jauna.

**Puntu bakarra.- Proposamena: 2011ko Aurrekontuari eginiko erreklamazioen ebazpena eta behin betiko onespena.**

Udalbatzak, 2011ko apirilaren 15ean eginiko osoko bilkuran, hasierako onespena eman zion 2011ko Aurrekontuari.

Erabaki hori 2011ko apirilaren 20ko GAOn, 76 zk.an, eta Udaleko iragarki-oholean argitaratu zen erreklamazioak egin ahal izateko.

Jendaurreko erakusketa epean- 2011ko apirilaren 23tik maiatzaren 11ra bitartekoa- hiru erreklamazio-idatzi jaso dira maiatzaren 10ean eta 11n, 5.503, 5.578 eta 5.579 sarrera-erregistro zenbakiarekin. Bertan, aurrekontuari hainbat erreklamazio egiten zaizkio.

Erreklamazio horiek aztertuak izan dira udal kontu-hartzaileak 2011ko maiatzaren 13an eginiko txostenean. Bertan, erreklamazio horiek abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.2 artikuluan -Gipuzkoa Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuena- aurreikusitako kasu bakar bati ere eragiten ez diotenez, erreklamazioak ez onartzea proposatzen du.

Ogasuna Batzordearen proposamena ikusi ondoren.

Mintzatu dira:

\* Ferradás jaunak (Ezker Batua-Berdeak) adierazi du ahaleginak egingo dituela ez luzatzen ez errepikatzen hasierako onarpenaren Udalbatza. Erantsi du gaur, beharbada, Legegintzaldi honen osoko balantze on baten Aurrekontua onartuko dela. Gobernu honek ekonomikoki edozein moduz funtzionatu du, oldarka, aurreikuspenik eta etorkizunerako inolako aurreikuskerik gabe. Aurrekontu honek Alkatea eta Gobernu Taldeko gainerako talde politikoak justifikatu beste

zentzurik ez aukerarik ez du, izan ere legegintzaldi grisa eta laua izan baitute. Jarraitu du esaten bere taldeko kideak zenbait gauzak kezkatzen dituztela eta beste batzuek aztoratzen. Alkatearen autismoak bere taldearekin edo oposizioaren beste taldeekin kezkatzen ditu, baita Gobernu Batzordea bera osatzen duten taldeekin ere, eta are gehiago, talde sozialistako kide batzuekin esatera ere ausartzen da. Erantsi du autismo hori Korporazio honetako teknikariei ere iristen zaiela. Alkateari aholkatuko lioke, asteburu honetan irakurtzeko daukan materialaren barruan, udal Kontu-hartzailearen txostena irakurtzea, nahiz eta badakien arrazoia ematen diola. Dena den, xehetasunez irakurtzeko aholkatuko lioke, puntuz puntu, eta bertan zer jartzen duen ez dezala alde batera utzi. Udal kontu-hartzaileari batzordeetan hitz egiten ez zaionean uzten, horrek adierazi nahi du zerbaitek ez duela funtzionatzen. Jarraian adierazi du badirela zerbitzuak inolako dokumentaziorik gabe aurrekontuak egin zaizkienak, dokumentaziorik ekarri gabe bilerak izan dira, aurrekontuak egin dira jakinda Eusko Jaurlaritzatik jasoko denari ez dagokiola, inprobisatu da eta inprobisatzen jarraitzen da. Horrek ez ditu kezkatzen, Alkateak dioenez Aurrekontu bizia baita, eta, dena den, exekutatu gabeko partidak badirenez, emaitzak beti superabita emango du. Baina. izutzen ditu, eskuzabala izanda Aurrekontuan etorkizun-sen murrizta, Udalak ez jasotzeak planteatutako auzietan 3 miloi litekeela ordaintzea. Merino Jaunak alkate gisa uzten duten oinordetza dugu lau urteko gobernuan. Horri talde politiko guztiek eta bertan dauden guztiek aurre egin beharko diote ondorengo lau urteetan. Eskuzabala izan eta ez du esango, nahiz eta auzietan % 50 soilik ordaindu behar izan, miloi erdi € dela. Alkateak esango du zein baliabide erabiliko dituen oraindik auzibidean dauden erreklamazioei aurre egiteko. Ondoren, galdetu du Aurrekontua horrek balio duen bere talde politikotik sumatzeko gauza direnari aurre egiteko eta, jakina, erantzuna ezezkoa da, Bestalde, Aurrekontua 20an onartuko dela diote, baina Udalbatza hau 21 deitua izan zitekeen artean tartea baitzuten. Errenteriako Udalbatzak

"paperetara" joko du, besteak beste, Aurrekontua onartzeko hauteskunde kanpaina bukatzeko 24 ordutik behera falta denean. Azkenik adierazi du Alkatearen ordainsaria zuzena ote den zalantza duela, Aurrekontuko Zortzigarren oinarrian azaltzen dena. Zalantza hori Lehendakaritza Batzordean planteatu zen eta oraindik ebatzi gabe dago.

\* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) erantzun dio: "Ez dakit Gobernu Taldearentzat Legegintzaldia grisa izan den ala ez, baina oposizioarentzat ez du askorik distirutzen. Zure zeregina bene-benetan oso tristea da, zeuk ere ez baituzu sinesten zer esaten ari zaren. Gidoi bati lotzen ari zatzaizkio. Zeuk landu duzu gidoia eta uste duzu antzeztu behar duzun zeregina dela. Inoiz ez dut ikusi zuk oraintsu egin duzun hain sinesgarritasun txikiko interbentzioa". Landutako Aurrekontua dela adierazi du - guztiak izan diren bezala- eta dauden itxaropenei araberakoa. Ez du berriro errepikatuko, baina denek dakite nola egiten diren aurrekontuak hemen eta leku guztietan. Jakina denez, ziurtasunak eta zalantza daude eta horietan oinarritua egiten dira. Aurrekontua dela eta, ez du uste lotsatzeko ezer dutenik. Bizirik dagoen eta bilakaera izan dezakeen seinalea da badirela betetzen diren aurreikuspenak, eta, baita aurreikuspenak gainditzen dituztenak ere, eta beste batzuk, aldiz, gauzatzen ez direnak. Esan bezala horren seinalea da Aurrekontuan ez dagoen 77.000 €-ko diru-laguntza Adinduen Egoitzarako. Jarraian adierazi du ez dakiela Ferradasek (Ezker Batua-Berdeak) nondik ateratzen duen auziei aurre egiteko hiru miloiak, hala izango den inolako ziurtasunik ez baitago, ez horretan ezta zabaltzeaz arduratzen den bestelako gauzetan ere, ez dagoen lekura beldurra edo ziurgabetasuna eramanez.

\* Peña andreak (EAJ/PNV) adierazi du Aurrekontuaren hasierako onarpenaren Udalbatzan esandakoari lotzen zaiola, ulertzen baitu, alegazioen epearen eta horien ebazpen

teknikoaren ondoren, lehen zeuden eszenatokian ez dela inolako oinarrizko aldaketarik izan.

\* Murua jaunak (atxiki gabeko zinegotzia) esan du eurek orokorrean bat egiten dutela Ezker Batuako ordezkariak esandako guztiarekin. Orain EAJko ordezkariak esan du ez dagoela aldaketa nabarmenik behin behinez onartu eta gaur hara eramandakoaren artean. Bere iritziz, beharbada, hori ez da zuzena eta eurek adierazten saiatuko dira. 2011ko Aurrekontuaren aurka aurkezturiko erreklamazioei Kontu-hartzaileak eginiko txostenean jasotzen diren ondorioekin ez dute bat egiten. Aurrekontuaren behin-behineko onespeneren aurka egiteko hiru aukera daude, eta hori Foru Arauak zehazten du. Alegia: 1. *"no ajustarse a la elaboración y a aprobación a los tramites establecidos por la norma foral.* 2. *Omitir el crédito necesario para el cumplimiento de las obligaciones exigibles por precepto legal.* 3. *Por ser manifiestamente insuficientes los ingresos con los gastos presupuestados con respecto a las necesidades que están previstos."* Beraz, uste dute irizpide politikoak alde batera uzten diren fase batean daudela. Orain, eztabaida teknika mailan finkatzen da. Kasu honetan eurentzat hori hala da, Kontu-hartzaileak fase teknikoak garrantzi handia hartzen du. Zoritxarrez Udalbatzetan ez ezik, batzordeetan ere Alkateak teknikarien parte hartzea ukatu egiten du. Legegintzaldi osoan gehiegirietan oinarrituriko jarreraz baliatuz. Teknikoa den gai batean Alkateak ukatu du udal teknikariaren parte hartzea eta horrekin batera informazio batzordean eman zezaken eztabaida ere. Alkatearen jarrerak behin eta berriz agerian uzten du gabezi demokratikoa eta hori berriro salatu behar dute, eta horrekin batera hori egiteko babes ematen dioten gainontzeko taldeak ere. Babes horrenik gabe aipatu jarrerak ez ziren posible izango. Gero gazteleraz jarraitu du eta esan du ez daudela ados erreklamazioen inguruan eginiko txostenean adierazitako puntu zenbaitekin. Desadostasunak aitatuko ditu eta lehen aitatu duen Foru Arauzan ezarritako hiru irizpideei jarraiki taldeka banatuta egingo ditu. Horrela, Foru Arauan

Aurrekontua egin eta onartzeko irizpideei jarraitu behar zaiola eta, esaten zuten Errenteria Garatuz enpresaren inguruko dokumentazioa ez zegoela osorik, eta beraz, urratzen zuela 21/2003 Foru Arauaren 6.2 artikuluan ezarritakoa. Gaineratu duenez Kontu-hartzaileak eginiko txostenean errekonozitzen da dokumentazio hori ez dela eman udal taldeei, nahiz eta gero berori espedientearen dagoela ere esaten duen. Ondoren, esan du sekula ez direla behartu Aurrekontua tramitatu eta onartzeko espedientearen barruan dagoen beharrezko dokumentazioa eskatzera. Bestetan jasotakoa ez bazen osoa ere, kasu honetan ez da horrela izan. Horregatik, ez dute aukerarik izan Arauak derrigorrezkoa ezartzen dokumentazioa aztertzeko. Eurek ez dituzte arduradunak bilatu nahi, baina begien bistakoa da udal taldeek ez dutela dokumentazio horrenik izan 2011ko Aurrekontuari hasierako onespina eman aurretik, eta horrek eragozten die sozietateko horren arriskuari buruzko iritzia izateko. Gertaturikoa akats administratibo bati leporatu baliokete ere, kontua da dokumentu ez ezkutatu direla, eta beraz, ez da bete Arauak ezartzen duena. Horrez gain, hainbat nabardura egitera behartuta dago. Alde batetik, Aurrekontuaren zifra orokorrak frogatu ostean, esan dezakete horiek ez datozela bat sozietateak aportatukoekin, izan ere, azken hauek –sozietatearenak alegia–, arraroa badirudi ere, inon ohartarazten ez den defizita erakusten dute. Jarraian, gainontzeko taldeei eskatu die sozietateak emandako dokumentazioa frogatzeko, hain zuzen bera esaten ari dena egiaztatzeko. Gaineratu duenez, hori ez da guztia, baizik eta alboan doan zorpetzeko laukian jasotzen dira kontu horrek eragindako gastuak eta horiek ez datoz bat, eta Aurrekontuan pasibo finantzieroak azaltzen diren lekuan. Hor, gainera, beste diferentzia bat dago, baina ezin izan dute frogatu onartu ostean esku zuten dokumentua eskatu arte eta Kontu-hartzaileak espedientearen zegoela dokumentazio hori ohartarazi zituen arte. Gaineratu duenez, egoera balantzean, 2011ko zutabea ez da azaltzen. Berak espero du talde guztiei emandako dokumentuko akats bat izatea eta ez izatea soili

atxiki gabeko zinegotzietan eman zaienakoa. Atxiki gabeko zinegotzientzat hori akats garrantzitsua da, nahiz eta badirudien gainontzeko zinegotziak ez direla konturatu edo ez zaiela inporta.

Amaitzeko, gogorazi nahi du Errenteria Garatuz enpresaren kontuarekin gogorazten Aurrekontua onartu nahi dutenei 400.000.- euroko emaitza negatiboarekin onartuko dutela. kasu honetan Bakoitzak har beza bere erantzukizuna, esan du. Foru Arauak jasotzen duen bigarren irizpideari dagokionez, legez eska dakizokeen obligazioak bete ahal izateko beharrezko mailegua ezkutatzeari dela eta, adierazi du txosten teknikoan jorraturiko hainbat kontu kokatzen ditu. Txostenak, judizialki eska dakiokeen obligazioei aurre egiteko nahiko mailegu ez badago, zera esaten du: zuhurtasunez, aurreikuspen bat egin beharko litzakeela kontzeptu horri aurre egin ahal izateko, eta gogorazten du auditoriak eginitako txostenen kontu hori bera aitatzeari dela. Hau da, azkenean Aurrekontua ez onartzeko ez dagoela nahiko arrazoi esaten badu ere, bai esaten duela, zuhurtasunez, Aurrekontuak kontzeptu horretarako Aurreikuspen bat egin beharko litzakeela. Aldiz, txostenen zurrutu egiten da aurreikuspen eza hori datu-ezak zaildu egiten duela aurreikuspen hori zehaztea. Hau da, oso kontraesankorra da alde batetik beharrezkoa jotzea eta gero inolako kopururik ez aurreikustea. Ziur aski -dio- huts egingo zuketean aurreikuspen bat egiteko garaian, beste kasuetan ere egin zezaketean moduan, baina ez lukete urratuko Foru Arauari, kasu honetan aurreikuspenik egin gabe egiten ari diren moduan. Txostenen aitatzeari datu-faltari buruz, uste du, berak bateren bat eman dezakeela, hain justu, Ezker Batuako ordezkariak ere aitatu duena. Izan ere, Erregistroan idatziz eskatu dute, inposatzen zaizkien eskakizun guztiak beteta, Udalak Auzitegietan epaitzeke dituen kasu guztiak, eta euren aburuz 3

milioi pasatzeko kopurua ateratzen zaie. Euren aburuz, aurreikuspenak zenbatekoa izan behar zuenari buruz irizpen bat ezarri behar zen, zeren eta erreklamazio horiei erantzun bat emateko arriskua Arauan ezarria dago eta ez dago mailegu bakar bat ere bideratu helburu horretarako, gisa horretan, bere iritziz, urratzen delarik lehen aitatu duen Arauak ezarritako irizpidea.

Azken irizpideari dagokionez, judizialki eska dakioken kontuei aurre egiteko mailegurik ez dela aurreikusi eta, kasu honetan, lurzorua udal ondareari buruz emaniko epaiari aurre egin ahal izateko ez delako ezer jarri eta, haren ustez, 2011ko martxoaren 24an Kontu-hartzaileak eginiko beste txosten bati buruz zera esaten du: Hirigintzako teknikariek informatu behar dutela gai horri buruz. Ziur aski -dio- gaizki ulerturen bat egongo da, eurek ez direlako 2/2006 Legea betetzeaz ari. Hau da, ez dira esaten ari 2011ko Aurrekontuan ez dela aipatu Lege hori betetzen ari ekitaldi honetako diru-sarrerak ez datozela bat legeak ezartzen dituen gastuekin. Horrez gain, ez datoz bat teknikariek gai honi buruz egiten duten interpretazioarekin -hori ez delarik oraingo kontua-, zeren eta, atxiki gabeko zinegotzien ustetan ekitaldiko baliabideen destinoa ez dator bat legeak ezartzen dituen lehentasunekin. Baina, hala ere, ez da kontu hori orain abordatu nahi duena. Aitzitik, bera epai irmo baten bidez ezarritako betebeharez ari da. 2007ko maiatzan Udal hau zigortua izan zen 3,6 milioi euro ezartzera babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko.

Kontu-hartzailearen txostenak ez du ezer aitatzeko kontu horretaz, eta beraz, ez dakite zein den haren iritzia atxiki gabeko zinegotziek egin duten erreklamazioaren mamiaz, zeren eta Hirigintzako Saileko teknikariek teknikariek eginiko txostenera jotzen du, eta hauek kontu horren zati bat abordatzen dute. Eurek, baimenduriko iritziriz ezean, jarraitzen dute pentsatzen hasierako onespena emandako Aurrekontuaren barruan ez aurreikustea kantitate bakar bat ere legeko betebehaz hori erantzuteko lehen aitaturiko Foru Arauan ezarritako agindua urratzea esan nahi du. Bestalde, hitz eginez jarraitu du eta haren esanen arabera Udalak



autoantolatzeke duen ahalmena aitatu du 2011ko ekitaldian lanpostu zenbait aurrekontu-dotaziorik gabe uzteko. Eta euren erreklamazioa bi laguni buruz bakarrik egin badute ere, badaude lanpostu gehiago aurrekontu-kontsignaziorik gabe utzitakoak. Beraz, bada, nahiz eta hartutako erabakietan ez datozen bat, onartzen dute Udalak autoantolatzeke duen ahalmena eta pentsatzen dute erreklamazioan aitaturiko lanpostu horiek aurrekontu-kontsignazioa beharko zuketela. Bere iritziz kontu ezberdinez hitz egiten ari dira eta bereiztea komeni dela nahiko bermerekin aboratu nahi badituzte. Izan ere Hiri Mantenimenduko arduradun nagusiaren lanpostua okupatzeko

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 11 botorekin (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ/PNV, PP eta Alkarbide) eta aurkako 8 botorekin (Ezker Batua-Berdeak eta atxiki gabeko zinegotziak),

## ERABAKI DU

1.- Atzera botatzea erreklamazioak, espedientean jasota geratu direnak.

2.- Behin-betiko onspena ematea 2011ko Aurrekontuari.

-----

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, Alkateak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 09:10 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin Akta hau egin dut Erkidego Autonomoko paper ofizialean, \_\_\_\_\_zenbakitik \_\_\_\_\_ra, eta nirekin batera Alkateak sinatu du. Egiatzatzen dut.